



**FORMAKUNTZAN DAUDEN IKERTZAILEAK EHUn
KONTRATATZEKO DEIALDIA, IKERTALDE EDO IKERKETA
PROIEKTU BATEN FUNTSEKIN FINANTZATURIK**

2026-II



SARRERA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean, EHU), Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerkuntza gunerik handiena izaki, eskuordetuta du unibertsitateko pertsonal titulatuak ikerkuntzan prestatzeko eginkizuna.

Egungo gizartean ezinbestekoak dira doktoreak, bai testuinguru produktiboan bai sozialean. Unibertsitateak doktoreak hezi behar ditu eta ahaleginak egin behar du prestakuntza hori, jakintzan eta berrikuntzan aurrera doan gizarteari egoki dakion, gizartean bertan emakume eta gizonen jakintza, batzuen eta besteen eskubide, erantzukizun eta aukeren berdintasunean txertatuz. Doktoregoko ikasketek, karrera akademiko bat egiteko prestatzeaz gain, enpresa, erakunde eta instituzio berritzaileetan langile gaituak sartzeko aukera ematen dute.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak urtero prestaketa bidean ari diren doktorego aurreko ikertzaileak kontratatzeke deitu ohi duen laguntza deialdi orokorrak gain, EHUko ikertzaileek ikertalde edo proiektuen berezko baliabideak dituzte, non eta gastu hautagarria baita prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatzea zeinek bere doktore tesia egiteko.

Hortaz, honako deialdi hau argitaratzen da, argitaratu osteko prozedura araututa eta helburu harturik hainbat ikertzailek, ikertalde, proiektu edo bestelako finantzaketa iturri batzuen funts propioak baliatuta, prestakuntzan dauden ikertzaileen kontratazioa sustatzeko adieraziko eskaerak bideratu eta, lanpostu huts horiek eskuratzeko jasotako eskabideak izapidetzea. Urtean, gutxien dela, birritan egingo da deialdia, bi deialdien artean 6 hilabete igaro baino lehen.

Nazioartekotzea balio erantsia da doktorego aurreko prestakuntzan, ikaskuntza eta ikerketa karreran beharrezkoak diren gaitasunen garapena osatuz. Horregatik, deialdi honek, prestatze bidean diren ikertzaileen deialdi orokorrarekin lerrotatuta, nazioarteko egonaldi bat egiteko baldintza ezarri du, batez ere doktorego-titularen nazioarteko aipamena lortzera bideratua.

1. oinarria. HELBURUA

Deialdi honen xedea da ikertzaileak prestatzea EHUⁿ doktore titulua lortzera bideratuta, deialdi honen *1. Eranskinean* deskribatutako doktore proiektuaren proposamen zientifikoetakoren bati modu unibokoan lotuta. Eranskin hori deialdi honen 1. fasea ebatzi ondoren eratuko da.

Aipatutako 1. eranskinean deskribatutako doktorego tesien proposamenak bat datoz EHUko ikertzaileek bidalitako eskaerekin; ikertzaile hauen talde, proiektu edo bestelako finantzaketa iturri baten funts propioak dituztelarik, gastu hautagarritzat jotzen dute prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatzea, zehaztutako jakintzaren eta gaiaren arloan doktorego tesia egitea bultzatzeko.

Deialdi honen babesean kontratatutako ikertzaileen prestakuntza doktorego aurreko kontratuen bidez egingo da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan eta irailaren 5eko 17/2022 Legearen (aurrerantzean, ZTBL) eta Langileen Estatutuaren bidez egindako aldaketan ezarritakoarekin bat etorrira.

ZTBLk ezartzen duen bezala, irailaren 5eko 17.2022 Legeak aldatu ondoren, doktore aurreko kontratuaren xedea doktoratu ondoko orientazioa (POP) ere izango da, Gehienezko epea 12 hilabetekoa izango da, deialdi honen 6.8 oinarrian ezarritako baldintzekin.

2. oinarria. ARAUBIDEA

EHUⁿ prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatzeke deialdi hau, bertan berariaz jaso ez diren alderdiei dagokienez, EHUⁿ ikertzaileak prestatzeko deialdi orokorraren oinarrien arabera arautuko da, berori argitaratu eta indarrean dagoenarekin.

3. oinarria. ONURADUNAK ETA GAIAK

Deialdi honetan eskaintzen diren laguntzen onuradun izan daitezke deialdi honetako 5. oinarrian deskribatutako baldintzak betetzen dituzten unibertsitateko tituludunak, zuzendari gisa *1. Eranskinean* agertzen diren pertsonen zuzendaritzapean.

Doktorego tesien gaiak eta laguntza bakoitzerako baldintza espezifikoak 1. eranskinean zerrendatutako proposamenen zerrendan ere jasoko eta deskribatuko dira.

4. oinarria. TESI ZUZENDARIEN BALDINTZAK

4.1. Eskari bakoitzak, gehien dela, hiru tesi zuzendarien bermea izan ahal du.

4.2. Tesi-zuzendarietako batek gutxienez, jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu eskaria egiten denean:

- I. EHUekiko kontratu lotura, funtzionarial zein lan lotura, eskaria agertzeko unetik eta laguntza gauzatzeko tarte edo epe osoan zehar.
- II. Doktorego tesia garatuko deneko EHUko doktorego programako irakasleetako bat izatea, edo doktorego programako batzorde akademikoaren erantzukizunpeko adierazpen bat izatea, (deialdiaren webgunean argitaratutako ereduaren arabera) doktorego programako irakasleak izan ahal izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, eta, eskatzaileari beka emanaz gero, dagokion programako irakasle gisa onartzeko izapideak egingo dituela 30 egun naturaleko epean, deialdiaren behin-behineko erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4.3. Proposatutako zuzendariak tesia egingo den doktoretza-programako irakasleen parte diren egiaztatu ahal izango da, doktoretza-programaren webgunera sartuz ("irakasleak" fitxa) <https://www.ehu.eus/es/web/doktoregoa> Gainerako zuzendariak ere, zein bere prozeduraz zuzentzen diren tutorekideen kasuan izan ezik, doktorego-programako irakasleen parte izan beharko dute, **edo, bestela, dagokion batzorde akademikoak tesi-zuzendari gisa onartu beharko ditu**, 30 egun naturaleko epean, deialdiaren behin-behineko erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5. oinarria. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

5.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte eskaria aurkezten denean:

- a. Eskatutako laguntzarako 1. *Eranskinean* zerrendatutakoekin bat datorren EHUko doktorego programan matrikulatuta egotea.

Eskabidea aurkezten den unean EHUko doktorego programa horretan matrikulatuta ez dauden hautagaiek ziurtagiri akademiko pertsonala ofiziala izan beharko dute, lortutako kalifikazio guztiak eta horien data jasotzen dituen. Ziurtagirian adierazi behar da egindako irakasgai eta kreditu guztiak lizentziatura osoa edo horren baliokidea direla, eta eskatzaileak hirugarren zikloko ikasketak egiteko ahalmena duela.

- b. Batezbesteko nota 6,5 puntu edo gehiago izatea doktoregoan sartzeko titulu gisa aurkeztutako lizentziatura- edo gradu-espediente akademikoan. Ondorengo titulazio hauen kasuan, gutxiengo nota hori 6 puntura jaitsiko da: Finantza eta Aseguruetako Gradua, Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua, Ingeniaritza Elektrikoko Gradua eta Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua. EHUⁿ prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatze deialdiaren II. eranskinaren arabera (2026).

Espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatzeko, doktoregora sartzeko titulutzat aurkeztutako lizentziatura edo gradua besterik ez da kontuan hartuko, beste espezialitate batzuetako irakasgaietan lortutako notak eta masterreko ikasketetako notak aintzat hartu gabe.

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batez besteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatu egingo da irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko

kalifikazioa biderkatuz irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik eta lortutako produktu guztiak batu eta kalifikazioaz gainditutako kredituen guztirako kopuruarengatik zatituz.

Baliozkotu edo egokitu dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliozkotutako edo egokitutako ikasgaien kasuan, jatorrizko ikastetxean edo ikasketetan lortutako kalifikazioak zenbatuko dira, beti ere dokumentalki egiaztatuta. Dokumentalki egiaztatu ezin balira, "nahiko" kalifikazioaz gainditu direla ulertuko da.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, Batez Besteko Notaren Baliokidetasun Adierazpen ofizialean agertzen den espediente akademikoaren batez bestekoa hartuko zaie aintzat. Ziurtagiria lortzeko, esteka honetan deskribatutako prozedura erabili ahal izango da:

https://universidades.sede.gob.es/pagina/index/directorio/Equivalencia_notas_medias

- c. I. eranskinean proiektu bakoitzerako zehaztutako baldintzak betetzea

5.2 Kontratua sinatzerakoan eskatzaileak 2025/2026 ikasturterako UPV/EHUko doktorego programan matrikulatuta egon beharko du, eskabidean agertzen diren tesi-zuzendariekin batera.

Europar Batasuneko herritarrak ez diren ikertzaile atzerritarrak kontratatzeke, Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena lortu beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kontratua sinatzen den egunean hautagaiak baldintza horietariko bat betetzen ez badu, kontratua ezin izango da formalizatu.

5.3. Ezin izango dira eskatzaile izan, ez eta deialdi honen bidez sustatzen den kontratazioan sartu ere, honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- a. Doktore titulua izatea, Espainiako edo atzerriko edozein unibertsitatek emanda.
- b. Eskabidea aurkeztu aurretik doktorego aurreko kontratua 3 urte baino gehiagorako baliatu badute, salbu eta desgaitasuna duten langileentzat Lege honetako Irailaren 5eko 17/2022 Legearen 21.c artikulua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzen duena.

6. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK:

6.1. EHUk lan kontratu bat formalizatuko dio laguntzaren onuradunari, ZTBLren 21. artikulua araututa. Kontratutako langileak prestakuntzan dauden doktorego aurreko langile ikertzaileetat hartuko dira. Onuraduna EHUko sail batean sartuko da eta, aldi berean, EHUko institutu edo ikastegi batera atxikitzeke eskatu ahal izango du, bertan garatuko baitu doktorego tesia.

6.2. Kontratua lanaldi osokoa izango da eta doktorego tesia egitea izango du xede, I. eranskinean proposatutako proiektuetako baten esparruan.

6.3. EHUⁿ ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdi orokorraren 5. oinarriaren 5. paragrafoan ezarritakoa aintzat harturik, kontratua arduraldi osokoa izango da eta urtebetetik gorako iraupena izango du, gehien dela, programan dirauen bitartean, 3 aldiz luzatu ahal izango dena, bakoitza urtebetez, doktorego programaren batzorde akademikoak edo, hala badagokio, doktorego eskolak aldeko txostena aurretik dela.

Hala ere, kontratua % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona batekin hitzartzen denean, kontratuaren gehieneko iraupena sei urtetakoa izan liteke, luzapenak barne, ikerketa jardueraren ezaugarriak eta jardueraren barruan izan litezkeen zailtasunak kontuan hartuta.

Langile bat ere ezin izango da kontratatu modalitate honen bidez, erakunde berean edo beste erakunde batean, lau urte baino gehiagotarako, luzapenak barne, salbu eta, aurreko atalean adierazitako moduan, desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan; zeinetan denbora ezin izango den sei urtetatik gorakoa.

6.4. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

6.5. 1. *Eranskinean* zerrendatutako proposamenei lotutako finantzaketa iturriek funts propio nahikoak izango dituzte kontratazio kostuak finantzatzeko, barne izanik kontratu amaierako kalte-ordainaren kostua.

Lehenengo urteari dagokion doktorego aurreko kontratuaren kostua hura finantzatzen duten organikoaren edo organikoen aurrekontuan gordeko da, eta horrekin lotutako gastu guztiak ordainduko direla bermatuko du.

Hurrengo urteetarako, eta EHUⁿ prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatzeke deialdi orokorraren 5. oinarriko 5. paragrafoan ezarritako luzapen izapideez gain, doktorego aurreko kontratua sustatu duten ikertzaileek Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote hurrengo urteko zenbatekoa estaltzeko finantzaketa nahikoa dagoela.

Aurkeztu ezean edo estaldura nahikorik ez balego, ez da luzatuko doktorego aurreko kontratua.

Laugarren urtekoaren luzapena edo kontratua gauzatzeko, gutxienez hiru hilabeteko ikerketa egonaldia egin beharko da atzerrian, modu jarraituan, nazioarteko doktoregoaren aipamena lortzera bideratuta. Baldintza hori betetzetik salbuetsita egon ahal izango dira aldeztu aurretik 3 hilabete edo gehiagoko nazioarteko graduondoko egonaldia egin dutela egiaztatzen dutenak. Egonaldia ezin izango da egin (edo egin izana, salbuespena eskatuz gero) eskatzailearen jatorrizko herrialdean edo ohiko bizilekuan, ez eta doktoregorako sarbidea ematen dioten gradu ikasketak egin dituen lekuan ere.

6.6. Deialdi honetarako formalizatzen diren kontratuen ordainsaria Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 21. artikulua eta prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen estatutua onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak arautuko dute. Horrez gain, kontuan hartuko da EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Akordioan xedatutakoa, non egokitzen baita aldi baterako ikertzaileen arautegia da, doktorego aurreko kontratuaren eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako Espainiako sistemara sartzeko kontratuaren modalitatean (Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko erabakia).

6.7. Deialdi honen bidez aukeratutakoek ez dute EHUrekin lan kontratuaren bidezko harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hori amaituko da kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan edo 14. oinarrian ezarritako beste edozein arrazoi gertatzerakoan.

6.8. Laguntza hauen bidez kontratatutako pertsonak 4 urteko gehienezko epea gainditu gabe tesia defendatzen badute (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legeak ezartzen duen 21. Artikuluak) doktore ondoko orientazio-aldi bat (POP) izateko eskubidea izango dute, ikertzaileen lanbide-hobekuntzari eta espezializazioari buruzkoa.

POP aldi horrek ez du kontratua aldatuko, eta gehienez 12 hilabeteko iraupena izango du tesia defendatzen denetik, betiere doktoretza doktore aurreko kontratua gauzatzen den bitartean lortzen bada, eta ezin izango da inola ere gainditu ZTBLe 21. artikuluan ezarritako 4 urteko gehieneko muga (irailaren 5eko 17/2022 Legeak aldatu zuen 14/2011 Legea).

Laguntza honen onuradunak VRlri jakinarazi beharko dio (pre-postdoc.dgi@ehu.eus) tesia irakurtzeko eta defendatzeko esleitzen zaion eguna, gutxienez 15 egun lehenago, eta tesia irakurri ondoren defentsa-akta bidali beharko du.

Nolanahi ere, POP aldi hori baliatzeko, beharrezkoa izango da kontratua berriro ordutzea, kontratuaren kostua sustatzen duen taldeak/proiektuak finantzaketa izatea.

7. oinarria. PROZESUAREN GARAPENA

7.1. Prozeduraren faseak:

7.1.1 - 1. Fasea Doktorego aurreko kontratua sustatzeko funts propioak dituzten EHUko ikertzaileen proposamenak aurkeztea:

Doktorego aurreko kontratu bat abiaraztea sustatzeko talde, proiektu edo bestelako finantzaketa iturri baten funts propioak dituzten UPV/EHUko ikertzaileek dokumentu hauek bidaliko dizkiote Ikerketaren arloko Errektoreordetzari, eskuragarri dauden ereduak erabiliz::

- Formakuntzan dagoen ikertzaile bat kontratatzeako eskaera.
- Kontratazio-deialdiaren xehetasunak, **WORD formatuan** eta posta ziurtatu bidez bidaltzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta 2024ko irailaren 11ko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren Ebazpenean (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko bitarteko elektronikoekin funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen duena) ezarritakoarekin bat etorriz, eskabidea UPV/EHUren egoitza elektronikoan (<https://egoitza.ehu.eus>) ezarritako epean aurkeztu beharko da, eta "ESKATU" eremuan "**PBII 2026-I proposamena_IN izen-deiturak**" erreferentzia eta "Ikerketaren giza baliabideen kudeaketa (U02000381) unitatea adierazi beharko da.

Horretarako, egoitza elektronikoan jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

Doktorego aurreko kontratu bat sustatzeko eskabideak aurkezteko epea 7 egun baliodunekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Ikerketaren Gestio Zuzendaritzak (IGZ) berrikusiko du aurkeztutako dokumentazioa eta ikertzaileei eskatuko die zuzendu beharreko alderdiak zuzentzeko, antzemandako akatsak argitaratu eta 3 egun balioduneko epea emanik.

Epe hori agortutakoan, IGZk *I. Eranskina* osatuko du 2. fasean ezarritako prozeduraren bidez betetzeko dauden eta prestatzen ari diren ikertzaileen lanpostu huts guztiak zehaztuta.

Akatsak epe barruan zuzendu ezean, ulertuko da ikertzaileak uko egiten diola doktorego aurreko kontratua abiarazteko asmoari.

7.1.2 - 2. Fasea Doktorego aurreko kontraturako hautagaien eskabideak aurkeztea

Interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute eskatutako dokumentazioa bidaltzeko, *I. Eranskina* Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzen denetik aurrera.

7.1.2.1. **Eskaria aurkezteko tokia eta modua:** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera, eskabideak EHUren <https://egoitza.ehu.eus> egoitza elektronikoaren bidez bakarrik aurkeztuko dira, eta "ESKAERA" eremuan: "**PIFG 2026-I**" jarri behar da eta destinoko atalean: "**Ikerketa errektoreordetza – Giza Baliabideak (U02000381)**".

Horretarako, egoitza elektronikoan jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

Salbuespen gisa, **Espainiako lurraldean bizi ez direla egiaztatzen duten hautagaiek soilik** eskabidea posta elektronikoz aurkeztu ahal izango dute, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera bidaliz,

gaian "PIFG 2026-I" adierazita. (deialdiaren 7.1.2.2 oinarrian eskatutako dokumentazio guztia, PDF formatuan).

Espainiako lurraldean bizi direnen eskaerak bide horretatik jasotzen badira "ez aurkeztutzat" hartuko dira, eta automatikoki prozesutik kanpo geratuko dira.

7.1.2.2. **Beharrezko dokumentazioa:** Ondoko dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) **Eskabide inprimakia**, IAEren webgunean eskuragarri dagoen eredu normalizatuarekin bat etorrita. Bertan, deialdi honen 1. eranskinean deskribatutako ikerketa proiektua identifikatuko da, doktorego aurreko kontratua horren barne dela.
- b) Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako **ziurtagiri akademiko pertsonala**, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren. Ziurtagiriak ofiziala egiaztatu beharko du eskatzaileak hirugarren zikloko ikasketak egiteko ahalmena duela. Kasuan kasuko ikasketak EHUⁿ egin dituzten hautagaiak ez dute dokumentu hau agertu beharrik.

Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera, atzerrian egindako unibertsitate titulazioen batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Hezkuntza eta Lanbide Hezkuntzako ministerioak emana. Agiri hau ondoko esteka honen bidez eskura daiteke:

<https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=818>

- c) Eskatzailearen **curriculum vitae**a (Formatu librean, hiru hizkuntza hauetako batean: euskara, gaztelania eta ingelesa).
- d) **NANaren, AIZren edo pasaportearen** fotokopia.
- e) Erantzukizunpeko aitorpena, non interesatuak adierazten duen inoiz ez dela kontratatua izan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- f) Erantzukizunpeko aitorpena, non interesatuak adierazten duen ez duela Doktore titulurik Espainako edo atzerriko edozein unibertsitatek emanda.
- g) Hala badagokio, 1. eranskinean zehaztutako hautagaien berariazko betekizunak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

7.1.2.3. 1. eranskinean jasotako zerrendako laguntza bat baino gehiagotara hautatu nahi dutenek, eskabide bana aurkeztu beharko dute.

8. OINARRIA. ONARPEN, EBALUAZIO ETA HAUTAKETA PROZESUA

8.1. Onarpena

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskabideen hautagarritasuna aztertuko da, 5. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuz.

IAEk webgunean argitaratuko du onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko ebazpena. Eskatzaileek 10 egun balioduneko epea izango dute, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabidea zuzentzeko edo eskatzen zaizkien dokumentuak aurkezteko. Zuzenketa hori deialdi honen 7. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberetatik egin beharko da.

Epe hori igaro eta aurkeztutako dokumentazio berria aztertu ondoren, IAEk onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, eta ebaluatuko direnak adieraziko ditu.

8.2. Ebaluazioa

Deialdi honen 1. eranskinean deskribatutako doktorego tesietako proiektu bakoitzak, aldean prestakuntza bidean ari diren ikertzaileen kontratazioa dakarrelarik, berariazko ebaluazio batzorde bat izango du, taldeko edo Proiektuko ikertzaile nagusiaren gidaritzapean, tesi proiektuaren zuzendaria ere barne izango duena.

Onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, IAEko Ikerketako Zuzendaritza Nagusiko pertsonalak behin betiko onartzen diren eskaerei buruzko dokumentazioa bidaliko dio batzorde horri. Ebaluazio batzorde bakoitzak gehienez 5 egun balioduneko epea izango du, dokumentazioa jasotzen duenetik zenbatzen hasita, jasotako eskabide bakoitzerako banakako ebaluazio zientifiko teknikoaren txostena egiteko, aurreko puntuan adierazitako irizpideen arabera.

Eskarien balioespena honako irizpide hauei jarraiki egingo da:

- 1. irizpidea - Hautagaiaren ibilbide akademikoa eta/edo zientifiko-teknikoa (40 puntu, gehienez). Kontuan hartuko dira hautagaiaren espediente akademikoa, curriculum vitae, egindako egonaldiak eta mugikortasunak, hizkuntzen jakitea eta euskararen jakitea, besteak beste.
- 2. irizpidea - *Hautagaia aurkezten den proiektura egokitzea* (60 puntu, gehienez). Balioetsiko da izangaia egokitzen den, bere prestakuntzaren eta esperientzia aintzat hartuta, garatu beharreko programa, proiektu edo ikerketa jardueretara. Horretarako, kontuan hartuko da proiektua egiteak bere ikerketa karrerarako izango duen balio erantsia, bai eta ikastegi zein zentroari eta ikertaldeari ekarritako balioa ere.

Ebaluazio batzordeak ezarri beharreko 60 puntutatik gorako gutxienezko puntuazioa beharko da bekarako hautagai izateko. Inork puntuazio hori lortuko ez balu, plaza hutsik geratuko litzateke.

Ezarritako epea amaitu ondoren, batzordeak jasotako eskabideen lehentasun proposamena igorriko dio IAEri, eta, bertan, hautatutako pertsona zein den adieraziko du, bai eta uko eginez gero erreserban geratuko liratekeen proposamenen ordena eta puntuazioa ere.

8.3. Erabakia.

Ebaluazio zientifiko-teknikoen txostenak jaso ondoren, IAEko Ikerketako Zuzendaritza Nagusiak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Eskatzaileek beren eskaeren ebaluazio-txostena posta elektronikoz eskatu ahal izango dute, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera zuzenduta, eta gaian “**PIFGRUPOS 2026-I_ebaluazioa**” adierazi beharko dute.

Interesdunek 5 egun balioduneko epea izango dute egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Epe horretan berariazko alegaziorik jasotzen ez bada, proposamena onartutzat joko da, eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratu dela ulertuko da.

Epe hori igarotakoan, IAEk aurkeztutako alegazioak aurkeztuko dizkio dagokion ebaluazio batzordeari, bertan azter daitezen eta, ondorioz, Ikerketako errektoreordeari diru-laguntza emateko behin betiko ebazpen-proposamena egin dadin.

Kontratazioa emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpen-proposamena IAEren web-orrian argitaratuko da, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balio izango du.

Nolanahi ere, edozein kontratu eman ahal izateko, onuraduna eskabidean adierazitako EHUko doktorego programan onartu eta matrikulatu beharko da.

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, baina inola ere aldi berean erabilita:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

9. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatu baino lehen, esleipendunek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAEⁿ:

- a) Eskaperan adierazitako doktorego programan matrikulatu izanaren ordainagiria.
- b) Doktorego ikasketetarako sarbidea ematen duten gradu titulua eta masterra.
- c) Deialdi honen esleipendun izateko betebeharrak onartzen dituen agiria, tesiaren zuzendarien eta saileko, institutuko edo atxikitze guneko zuzendariaren oniritziarekin.
- d) Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- e) Lanean hasi izanaren ziurtagiria.
- f) Kasuan kasuko ikerketako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

Dokumentazio hau agertzeko epea eman eta ezetsitako laguntzen behin behineko ebazpenean adieraziko da. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

Kontratuak formalizatzeko eta sailean, institutuan edo ikastegia hasteko epea 3 hilabetetako izango da, gehienez ere, behin betiko ebazpen proposamena Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori, salbuespen gisa, beste bi hilabetez luzatu ahal izango da, hori justifikatzen duten arrazoiak badaude, eta betiere IAEⁿ izanik.

Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo sail, institutu edo ikergunean lanean hasiko, ulertuko da doktorego aurreko kontratuari uko egiten diola.

Eskaria ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

10. oinarria. KONTRATATUTAKO PERTSONALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Deialdi honen babesean kontratatutako langileen eskubideak eta betebeharrak jasota daude EHUⁿ ikertzaileak prestatzeko indarrean dagoen deialdi orokorraren oinarrietan.

Nolanahi ere, laguntza honen onuradunak VRlri (pre-postdoc.dgi@ehu.eus) jakinarazi beharko dio tesia irakurri eta defendatzeko esleitzen zaion eguna, gutxienez 15 egun lehenago, eta defentsa-akta bidali beharko du tesia irakurri ondoren.

11. oinarria. TESI ZUZENDARIAREN BETEBEHARRAK

11.1. Tesi zuzendarien betebeharra izanen da doktoregaiari emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean tesia zuzendari-kide gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

11.2. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IAE-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

12. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

Deialdi honen kontura finantzatutako kontratuak bateraezinak izango dira beste edozein kontraturen indarraldiarekin, Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 19. artikuluko jarduerak eta Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 60. artikuluan jasotako beste erakunde edo pertsona fisiko batzuekiko lankidetzak kontratuak izan ezik. Azken kasu horretan, jasotako diru-kopuruak ezin izango du gainditu laguntzaren urteko zenbateko gordinaren % 30.

Nolanahi ere, jarduera horretan parte hartzea bateragarria izango da baldin eta ez badio eragiten doktorego aurreko kontratuaren prestakuntza alderdiari, bere xedea zuzenean lotuta badago doktorego tesiarekin, eta tesia zuzendariak baimena ematen badu, zeinak, aldi berean, parte hartu beharko baitu.

13. oinarria. JARRAIPENA

13.1. Deialdi honen arabera kontratatutako langileek egindako lanaren jarraipen zientifiko-teknikoa IAEko pertsonalari dagokio.

Oro har, doktorego aurreko kontratazioaren arduradunak txosten bat bidaliko dio IGZri, urte bakoitza amaitu baino hilabete lehenago, honako hauek adieraziz:

- Doktorego tesian egindako aurrerapenak
- Komeni den ala ez beste aldi baterako kontratuarekin jarraitzea. Erantzuna ezezkoa bada, arrazoiak justifikatu beharko dira.
- Hurrengo kontratu aldian bermea jarriko duten organikoak.

Txosten hori egiteko, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen txantiloia erabiliko da eta pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidaliko da.

Laugarren urterokoaren amaieran, IN pertsonak amaierako txosten bat igorriko du, aurreko paragrafoan adierazitako bide bera erabiliz, tesiaren egoeraren eta aurreikusitako defentsa dataren berri emanez (oraindik egin ez bada).

Urteko zein amaierako txostenek doktorego programaren arduradunaren eta tesiaren zuzendarien oniritzia izan beharko dute.

ICZko pertsonalak jarraipen eta egiaztapen jarduketa egokiak egiteko aukera izango du, egokitze jotzen duen informazio osagarria eskuratzeko.

14. oinarria. KONTRATUEN ETETEA

14.1. Lan kontratua ondorengo arrazoietakoa batengatik etengo da:

- a) Doktorego aurreko kontratua finantzatzeko ikertzaile proposatzailearen proiektuan edo ikertaldeetan aurrekontu krediturik ez egotea
- b) Kontratatuak berak uko egitea.
- c) Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- d) Eskaeran adierazitako doktorego programan matrikulatutako pertsonaren izaera galtzea.
- e) Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskaeran adierazitakoak ez diren beste tesi zuzendarikideekin aritzea, IAEren baimen espresurik gabe.
- f) Tesi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak abalaturako txostenak arrazoituz gero.
- g) Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- h) Langileen Estatutuan jasotako kausak (49. artikulua)

14.2. Deialdi honen bidez kontratatutako langileei eragiten dien edozein gorabehera Ikerketa Errektoreordetzari jakinarazi beharko zaio (pre-postdoc.dgi@ehu.eus), gertaera eragilearen ondorengo hiru egun baliodunetan.

Jakinarazpen horrek tesi-zuzendariaren oniritzia izan beharko du, eta, horrekin batera, kasu bakoitzean eskatzen diren justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dira.

Kontratuari uko egiten bazaio, komunikazioa astebete lehenago egin beharko da, eta dagokion idazkia Ikerketa Errektoreordetzari (pre-postdoc.dgi@ehu.eus) eta Irakasle eta Ikertzaileen Errektoreordetzari (neg.investigadores@ehu.eus) bidali beharko zaie.

15. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZPIOAK

15.1. Deialdi honen bidez garatzeko proposatutako jardueretan gizakiak, lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabiltzen badira, kontratua formalizatzeko unean errespetatu beharko dira indarrean dagoen EHUⁿ prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatzekeo deialdi orokorraren 16. oinarrian deskribatutako printzipioak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeterean epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta

hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluekin bat etorrira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2026ko irailaren 14an

Juan Ignacio Umerez Urrezola
Ikerketa errektoreordea